




ATZEKOEI KANTARI

Atzekoei kantatzeko ariketa egingo dugu, bat-batean. Horretarako gaia emango zaie eta 2 oinak, atzeko bakoitzari kopla bat botatzeko. Gero, atzeko bakoitzak erantzun egin behar du, kopla batekin.

PATATA TORTILLA TXAPELKETAN



Herriko jaietako patata-tortilla txapelketan zaudete.

Zu txapelketako epailea zara eta atzeko hauek tortilla bana aurkeztu dute lehiaketara.

Bakoitzari zure epaiaren berri emango diozu, kopla banarekin; horretarako oin bikoteak dituzu aukeran.

Atzekoek erantzun egingo diezue, beste kopla banarekin. Nahi baduzue erabiliko dituzuen 2 oinak papertxo batean idatzi, bistan izateko.

TORTILLA
BOROBILA

—

DUZULA
KIPULA

—

PATATA
FALTA

—

GAZI
IRABAZI

—

EZINA
GORDINA

GOZOA
OSOA

—

EDERRA
PIPERRA

—

EBAZPENA
AZKENA

—

GAUZA
ARRAUTZA

—


ONA
DIPLOMA



ATZEKOEI KANTARI

Atzekoei kantatzeko ariketa egingo dugu, bat-batean. Horretarako gaia emango zaie eta 2 oinak, atzeko bakoitzari kopla bat botatzeko. Gero, atzeko bakoitzak erantzun egin behar du, kopla batekin.

AZTERKETAN



Zu irakaslea zara eta atzeko hauek zure ikasleak dira.

Azterketa egin diezu eta ikasle denek erantzun berdinak eman dizkizute, hitzez hitz.

Ikasle bakoitzari kopla bana botako diozu; horretarako oin bikoteak dituzu aukeran.

Atzekoek erantzun egingo diozue, beste kopla banarekin. Nahi baduzue erabiliko dituzuen 2 oinak papertxo batean idatzi, bistan izateko.

HITZEZ HITZ
BERRIZ

—

ERRUGABE
DAUDE

—

BERDINA
EGINA

—

ONDOAN
JOAN

—

IZEN-ABIZENAK
BESTEENAK

AZTERKETA
TXULETA

—

HAMARRA
BAKARRA

—

BATERA
ATERA

—

KOPIATU
ERREKUPERATU

—

BARKATU
APROBATU